



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

José María Alzuri Vertiz jauna
Juana María Altxu Juanikorena andrea
Ainhoa Bereau Alchu andrea
Pello Ariztegi Etxepeteleku jauna

2020eko ekainaren 4an, 16:00etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTAK ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkurako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta Udalburuak bozkatzera deitu du:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Aktak onetsi dira.

2. GARARDIKO ANTENA ERABILTZEKO HITZARMENA .

Eskatzailea eta Udalaren artean hitzarmenaren ziriborroak prestatu ondoren, Udalburuak behin betiko hitzarmena aurkeztu dio Udalbatzari. 280/1990. Foru Dekretuaren 117. Artikuluaren arabera, Udalburuak hitzarmen hau bizilagunen onurarako dela aitortu du, herrian kalitatezko interneta eskuragarri izatea eta internet eskaintza zabaltzea funtsezkoa delako Nafarroa mailan lurralde kohesio eta gizarte garapena bermatuko duten sare eta azpiegitura teknologikoak bermatze aldera. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Hitzarmena onartzea eta Alkatea Udal ordezkari izendatzea hitzarmena sinatzeko.

2.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea.

3. NAFAR GOBERNUA ETA FNMT-REN ARTEKO HITZARMENARI LOTZEA, ZIURTAGIRI ELEKTRONIKOAK TRAMITATZEKO.

Aztertuta Nafar Gobernuaren eta FNMTren arteko hitzarmena, eta administrazio elektronikoaren ezartzea dela eta, udalkideek sede elektronikoaren eta zigilu elektronikoaren inguruan mintzatu dira. Aukera dago, ziurtagiri elektronikoak dohainik ateratzeko, FNMT eta



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Nafar Gobernuaren arteko hitzarmenera atxikituta. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- Atxikitzea FNMTko eta Nafar Gobernuaren arteko hitzarmenera.**
- 2.- Idazkaria autorizatzea ziurtagiri elektronikoen eskaerak bideratzeko.**
- 3.- Atxikipena eta autorizazioa Nafar Gobernura helaraztea atxikipena onartu dezaten.**

4. MERKATARI TXIKIAREN INGURUKO HITZARMENA: 26/2020. EBAZPENA BERRESTEA.

Udalburuak azaldu du PAOC-a martxan jarri zela 26/2020. Ebazpenaren bidez eta Ebazpen horren baliogarritasuna Udalbatzak ebazpena berresteari baldintzaturik zegoela. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- 26/2020. Ebazpena berrestea.**
- 2.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.**

5. XEHETASUN AZTERLANA KONSEJO KALEA 22: HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak gaia azaldu eta arkitektoen txostena aldekoa izanda, bozkatzera deitu du. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- Xehetasun Azterlanari hasierako onespena ematea, behin betiko onespena bihurtuko delarik baldin eta erakustaldi publikoan alegaziorik aurkezten ez badira.**
- 2.- Xehetasun Azterlana erakustaldi publikoan jarri 20 egunez, NAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.**
- 3.- Erakustaldi publikoa Diario de Noticias eta Diario de Navarra egunkarietan argitaratzea.**
- 4.- Akordioa interesdunari eta aldameneko jabeei jakinaraztea.**



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

6. 2019KO KONTUEN TXOSTENA

Udalburuak azaldu du, kontuhartzailea lanaldi erdian hasi dela berriro ere. Hori dela eta, kontuhartzaileak, itxitako kontuak birpasatzeko helburuz **gaia mahaiaren gainean uztea erabaki da.**

7. HERRIKO OSTATUEN EGOERA, ALARMA EGOERA BITARTEAN.

Udalburuak azaldu du, Abarun aterpetxeak eskaera aurkeztu zuela alarma egoera ezarri zenean, hilabete horretako eta alarma egoera irauten zuen bitarteko alokairuak ez kobratzeko. Udalburuak, bilkura ospatzen zen bitartean eskaera onartu zela azaldu du, betiere Udalbatzari egoeraren berri emango zitzaizlarik. Udalbatzak harturiko akordioa **berretsi egin du.**

8. OBRA BAIMEN LUZAPENA: IOSU APEZTEGIA.

Obra lizentzia eman zitzaion Mercedes Erasun Aríztegui andreari 2010eko ekainaren 8ko alkatearen Ebazpenean, Iturengo 1 poligonoko 119 partzelan (lurzoru urbanizaezina) oilaskoak gizentzeko hegazti ustiatagia handitzeko. Gero, obrak bukatzeko epearen luzapenak onetsi ziren ondoko hauen bitartez: 2013ko ekainaren 19ko Alkatetzaren Ebazpena, 2014ko apirilaren 3ko Osoko Bilkura, 2015eko martxoaren 31ko Alkatetzaren Ebazpena, 2016ko martxoaren 21eko Osoko Bilkura eta 2017ko maiatzaren 26ko Osoko Bilkura. Ondoren, 2017/45 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpenean, 2017ko abenduaren 20koa, erabaki zen obrak egiteko lizentzia eskualdatzea onestea, Josu Apezteguia Erasunen izenean jarritz. 2018ko abuztuaren 8an ospaturiko Osoko Bilkuran obra baimenaren luzapena onartu zitzaion Josu Apezteguia Erasun jaunari, baina honakoan hurrengo baldintzak betetzeari baldintzatu zitzaion luzapena:

- Aurkeztu obraren aurrekontua eguneratua eta betekizun teknikoen konplimenduari buruzko txostena edo erantzukizunpeko aitorpena. Agiri horiek aurkez ditzake orain edo obra bukaerako ziurtagiriarekin batean.
- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenteko hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen).
- Obrak egiterakoan, Udal araudiak jartzen duena bete, hirugarrenen eskubideak errespetatu eta eskatu den obra baino gehiago ez egin. Espediente zigortzailea irekiko da lizentziarik gabeko obrak egiten badira eta emandako lizentzia betetzen ez bada.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Aurrekariak ikusita eta luzepnak direla eta obra amaiera aurreikustea zaila dela jakinda, Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Eskatzaileari aipaturiko baldintzen artean lehenengoa betetzeko eskatzen zaio. Hau da, obraren aurrekontu eguneratua eta betekizun teknikoen konplimenduari buruzko txostena edo erantzukizuneko aitorpena aurkeztea. Hau aurkeztuta, eskaturiko luzapena emanen zaio Alkate Ebazpen bidez.

2.- Errekerimendu hau betetzeko hilabete bateko epea ematea.

3.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

9.ESKAERAK.

9.1.- Herri Urratsek laguntza eskatu du. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- 200 euroko diru laguntza ematea.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

9.2.- Garbiñe Leitza Mikeo andreak, bere inguruko bizilagunen izenean, haien etxeetara doan bidea moldatzeko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

1.- Bidea posible denean moldatuko dela auzolanaren bidez, herriko beste konponketak kontuan harturik.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

9.3.- Mirentxu Goienetxe andreak, herria gurutzatzen duen errepidean abiadura moteltzeko neurriren bat hartzea eskatu zuen. Obra publikokoekin mintzatu ostean konponbiderik zuzenena irtebidea (*resalto*) jartzea dela aipatu zuten. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

1.- Eskaera kontuan hartzea eta ahal den heinean arazoari irtenbidea ematea, horrelako obra batendako aurrekonturik ez dagoela kontuan harturik.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

Jose María Alzuri Vértiz zinegotzia bilkuratik aretotik atera da.

9.4.- Jose María Alzuri Vértiz haritza aprobetxatzeko eskaera egin zuen. Basozainak haritza 52,5 eurotan baloratu zuen. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Haritzaren aprobetxamendua Alzuri jaunari ematea, aprobetxamenduaren truke 52,5 euro ordiandu beharko dituelarik.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

José María Alzuri Vértiz zinegotzia berriro sartu da bilkura aretoan.

9.5.- Maialen Mutuberría Iturralde andreak haritza aprobetxatzeko eskaera egin zuen. Basozainak haritza 9 eurotan baloratu zuen. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Haritzaren aprobetxamendua Mutuberría andreari ematea, aprobetxamenduaren truke 9 euro ordaindu beharko dituelarik.

2.- Akordioa interesdunari jakinaraztea.

9.6.- Marcelino Alchu jaunak, bere etxe atarian ur putzuak sortzen direla azaldu eta hauekin bukatzeko eskaera aurkeztu zuen. Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5

Abstentzio 2

1.- Arazoa ez dela bere etxe atarikoa soilik, orokorragoa dela eta beraz konponbide orokorragoa eman behar zaiola.

2.- Udalak konponbidea ematen saiaturik dela kontuan izanik horretarako partidarik ez dela.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

3.-Akordioa interesdunari jakinaraztea.

10. ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (02/2020. ebazpenetik 31/2020. ebazpenera) eta Udalbatza **jakinaren gainean gelditu da.**

11. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOAK.

Jarraian Udalbatza hurrengo gaien inguruan jakinaren gainean gelditu da: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak emandako erreketak baimenak; Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak egindako jakinarazpenak; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak emandako oihan aprobetxamenduak; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari egindako oihan aprobetxamendu eskaerak; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuari egindako oihan aprobetxamenduen luzapen eskaera; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak egindako abeltzaintza ustategiaren erregistroko aldaketak; Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak egindako uraren analisisen emaitzak (parametroen barnean); Turismo eta Merkataritzako Zuzendaritza Orokorrak Turismo Erregistroan egindako adldaketak.

12. MOZIOAK

1. N-121 errepidearen inguruko mozioa.

Udalbatzak, 2568/1986 Errege Dekretuaren 97.3 artikuluen arabera, gai hau sartu eta eztabaidatzeko onartu du **aho batez.**

“MOZIOA:

NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATZEN DIOGU NEURRIAK HARTZEA ETA BEHAR DIREN HITZARMENAK EGITEA N-121A ERREPIDEAN IRTEERA EDO HELMUGA EZ DUTEN MERKANTZIEN GARRAIOA BESTE ERREPIDE ALTERNATIBOETATIK JOATEKO, ERRIOXAKO ETA KATALUNIAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK IBILGAILU ASTUNEN PROPORTZIOA HANDIA DEN ERREPIDE NAZIONALETAN EGIN DUTEN BEZALA (N-232, N-11, N-240 ETA N-340).

ARGUMENTUAK



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

N-121A errepidetik eta tuneletik pasatzen den ibilgailu astunen kopurua oso handia da, horrek arrisku nabarmena eragiten du errepideko erabiltzaileentzat eta eskualdeko herritarrentzat.

Tunelak:

Segurtasun neurriak ez dira nahikoak. Almandoz eta Belateko tuneletan lanak egin diren arren, itxiera baino lehenago bezala, kamioi kopurua etengabe igotzen baldin badoa, tunel hauen arrisku maila handituko da.

Tuneletan egindako lanek apenas dute eraginik izan arrisku faktorerik handiena konpontzeko, ibilgailu astunek su hartzea, eta, hori gertatzekotan, bertan dauden pertsonen biziraupena bermatzea (egindako ekintzak ez dira *Gutxieneko segurtasunari buruzko 2004/54 Europako zuzentarauan* zehazten direnak, gobernuak interpretatzen duen bezala).

Suteek sortzen dituzten ke eta gas toxikoak ez badira tunel barrutik behar bezala eta azkar husten, bertan dauden pertsonak arrisku larrian egonen dira, ikusgarritasun faltagatik eta gasek laster batean asfixia eragiten dutelako, beraz, tunelak ahalik eta azkarren hustu behar dira.

Sua itzaltzeko zerbitzuen erantzun azkarrik gabe, 2 tuneletako egungo aireztapen sistema ez da gai ibilgailu astun bateko suteko gasak kanporatzeko, barruan dauden pertsonak kaltetuta atera gabe. Tunel hauek ez dute larrialdi irteerarik erabiltzaileak modu azkar eta seguruan bertatik ateratzeko.

2015ean Belate eta Almandozko tuneletako arrisku analisia egin zen eta zehaztu zen bi tunel hauek azkeneko kategorian sartzen zirela, hau da, **“arrisku handiko tunelak, ez dira segurutzat hartuko eta neurri osagarriak hartu beharko dira segurtasuna handitzeko eta zerbitzua ematen jarraitzeko”**.

Analisiak, oraindik ere, emaitza okerragoak ematen ahal zituen zenbait aspektu astungarri kontuan hartu izan balira, adibidez, ibilgailu astunen suteen edo sute-hasieren maiztasuna, horrelako egoeretan erabiltzaileek hartu beharreko jokabideen



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

berri ematen duten kanpainarik ez izatea, neguan merkantzia arriskutsuen garraioa inolako neurri gehigarririk gabe, edo eguneratutako larrialdi planik ez egotea.

Asko dira egunero tuneletatik pasatzen diren ibilgailu astunak (2.100 kamioi inguru 2014an), ondorioz suteak egon litezke. Analisi horietan sute arriskua gutxitzeko faktore nagusia epe motzean ibilgailu astunen trafikoa gutxitzea zela adierazi zuten.

Irteera edo helmuga N-121A errepidean ez duten ibilgailu astunen desbideratzearen ikerketa eginda (1200 kamioi inguru Nafarroako Gobernuaren estimazio baten arabera), ondorioztatzen da arrisku maila jaitsiko litzatekela, Almandozko tunelean maila onargarri batera eta Belateko tunelean maila onargarri batetik hurbil.

2016ko ekainean 31 udalek Nafarroako Gobernuari eskatu zioten presazko neurriak hartzeko probatuta dagoen arrisku maila jaisteko. Gobernuak ez zuen inolako neurririk hartu, nahiz eta analisi horiek ezagutu,.

Tuneletako arrisku maila hazi da. 2018an, ibilgailu astunen bolumena %50 igo da 2014tik; hau da, 2015ean egindako analisisian baino 1000 kamioi gehiago pasatzen ziren. Adierazle horrek, zalantzarik gabe, txosten horietan estimatzen den arrisku maila handitzen du.

2018ko martxoaren 5etik 9ra, egunero 9000 ibilgailu pasa ziren tuneletatik, horietatik ia 3500 ibilgailu astunak ziren, %40. Estimaten da ibilgailu astun horien %70, 2500 inguru, nazioarteko ibilbidea egiten dutela; hau da, N-121A errepideko eskualdean ez dute ez irteerarik ezta helmugarik ere.

Larrialdi zerbitzuen eraginkortasun eza eta arriskua. Hurbilen dagoen suhiltzaileen parkea (Oronoz-Mugairin) oso urruti dago tuneletan ibilgailu astun baten sutea itzaltzeko eraginkorra izateko eta ezbeharrean inplikaturik dauden pertsonak erreskatatzeko.

Eraginkortasuna ez da beharko litzatekeena; izan ere, erantzuna emateko denbora ez da egokia, lan hauetarako langileen formazioa ez da beharko litzatekeena eta dituzten ibilgailuak ere ez dira aproposenak.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Suteren bat baldin badago, Belateko Kontrol Zentroak ez du esku-hartzeko edo sua itzaltzeko gaitasunik.

Ondorioz, erabiltzaileak sutean inplikatura ikusiko dira eta kanpoko laguntza teknikorik gabe, beraz, bere kabuz erabaki beharko dute zer egin babesteko.

Errepidea:

Tuneletan gertatzen den bezala, N-121A bi noranzko errepidea denez, istripuak gertatzeko probabilitatea handiagoa da, errepidea edo tunelak noranzko bakarrekoa denean baino; hau da noranzko bakarreko zirkulazioa eta zentzu baten eta bestearen artean bereizketa fisikoa duten errepideak (autopistak edo autobideak).

Istripu larrienak, portzentaje altu batean, N-121A bezalako bi noranzko dituzten errepideetan gertatzen dira, aurrez aurreko talkak egoten direlako. Istripu hauetako gertaerarik latzenak tartean ibilgailu astunak daudenean ematen dira.

Hori argi geratzen da N-121A errepidean.

10 hilabetetan (2017ko apiriletik 2018ko apirilera), 10 pertsona hil ziren, 12 zauritu larri eta beste hainbat arinago zauritu ziren. 10 heriotza horietatik 8tan (%80) aurrez aurreko talkak gertatu ziren eta hildakoak egon diren istripuen %70ean ibilgailu astunak egon dira tartean. Ibilgailu astun hauetako gidariak ere biktima izan dira: 2 hildako eta beste 4 larri zauritu.

Balantze honek, hala ere, ez du N-121A errepidearen egoeraren larritasuna erabat adierazten. Kontuan hartu behar dira artikulatutako ibilgailu astunek izandako beste 6 istripu larri aipatutako epearen azken 4 hilabeteetan: 3 kasutan artazia egin eta irauli dira ibilgailuak, beste 3 kasutan tuneleko ikusgarritasuna galdu zen Belateko tunelean kamioien turbo-motoreen matxurak eragindako kearengatik.

Epe berean, A-15 autobidean ez da inolako istripu hilgarririk gertatu eta ez da istripu adierazgarririk egon. Kontuan hartu behar da zirkulazio bolumen handiagoa duela eta noranzko bakarreko errepidea dela, N-121A errepidetik paraleloan doa eta honen alternatiba da.

Ikerketa askok adierazten dute (RAC-Real Automóvil Club, AIPCR-Asociación Mundial de la Carretera, sustapen Ministerioa, Trafiko Zuzendaritza Orokorra eta abar) kamioiak bi noranzko dituzten errepideetatik, autobia edo autopistetara desbideratzea, hildakoen kopurua jaitsiko lukeela.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Arazo honi irtenbidea emateko adibide argi eta arrakastatsuak ere badaude, adibidez N-II-koa Gironan, N-121A errepideko arazo ia berberarekin. Administrazioei inolako koste ekonomikorik ez die suposatu, mugara doazen eta mugatik datozen kamioiak AP-7 autopistatik desbideratzen dituzte. Hildakoen kopurua asko jaitsi da. Bi urteko probaldian (2014-2016) heriotzak 15etik 3ra jaitsi dira.

Adibide hori ez da bakarra, beste zenbait ere badaude, esaterako, N-232 errepidea Errioxan, N-340 Tarragonan, N-240 Lleidan....

Historikoki Nafarroan hauek izan dira istripu hilgarri gehien izan dituzten errepideak: N-121A, N-111 (Iruñea-Tutera) eta N-232 (Tutera-Logroño). Gaur egun, Nafarroan heriotza gehien dagoen errepidea N-121A errepidea da, nahiz eta 66 kilometroko ibilbide motza duen eta hainbat hobekuntza egin diren.

Errepide honetan, azken 25 urteetan 180 heriotza baino gehiago egon dira eta kontaezinak dira zauritutako pertsonak. Bakarrik 1999an eta 2005ean gainditu zen 10 heriotzetako langa eta aurten ere gainditu da.

Bitartean historikoki hilgarriak izan diren errepideetan heriotza kopurua jaisten ari dira, baina N-121A errepideko heriotza kopurua gehiengo historikoetara bueltatu da.

A15 errepidea bikoiztuta dagoen errepidea da, gaitasun handiagoa du trafikoa hartzeko eta seguruagoa da. Europarekin garraio lotura egiteko diseinatu eta proiektatu zen. A-15 errepidean gero eta kamioi gutxiago ibiltzen da, 2002an egunero 2.500 kamioi ibiltzen ziren eta 2017an 1.400. N-121A errepidean, ordea, kamioi kopurua handitzen doa, 2002an egunero 950 kamioi ibiltzen ziren, gaur egun 3000 (A-15eko datuak Gorosmendi tunelekoak, eta N-121A errepidekoak Belateko tunelekoak).

Krisialdi ekonomikoak eta merkantzien garraioari A-15 eta AP-8an jarri zaizkion gain-kostuek zer ikusi handia dute azken urte hauetan ibilgailu astunek egin duten errepide aldaketan.

N-121A errepidea ibilgailu astunez gainezka dago eta honek errepidearen segurtasunari eta trafiko-jarioari ez dio inolako mesederik egiten. Kamioi gehienek nazioarteko garraioa egiten dute, eta horrek eskualdean eragin ekonomiko gutxi du (salbu, sektore oso konkretu batzuetan, esaterako gasolindegia). Eta eragin ekonomiko hori ez da inola ere konparagarria eta konpentsagarria segurtasun falta eta istripu kopurua handitzearekin.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

A-15 errepideko bidesarien gain-kostua da nazioarteko garraioak N-121A errepidea aukeratzeko arrazoi nagusia. Ondorioz, Nafarroako Gobernuari dagokio behar diren neurriak hartzea eta behar diren hitzarmenak egitea N-121A errepideko istripu kopurua jaisteko.

2019 urtearen bukaeran izandako istripuan Azpilkuetako ama eta alaba bizia galdu bazuten, 2020 honetako hasiera ezin makurragoa izan da. Bi istripu berri non gure eskualdeko beste 3 lagun hilik suertatu dira. Bi istripuetan kamioen partehartzea gertatu da.”

Udalburuak mozioa aurkeztu du. Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak hurrengoa **erabaki du**:

Alde 5
Abstentzio 2

- 1.- Mozioa onartzea.**
- 2.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea.**

2. Orkoiengo udalaren eskaera: eraso sexisten gaitzespena.

Udalbatzak, 2568/1986 Errege Dekretuaren 97.3 artikuluaaren arabera, gai hau sartu eta eztabaidatzeko onartu du **aho batez**.

Udalburuak Orkoiengo Udalak harturiko akordio baten berri eman du. Orkoiengo Udalak bidalitako idazkiaren atal batzuen transkripzioa hurrengoa da:

“Orkoiengo Udaleko talde politiko guztiek, gure herrian emakume baten aurka izan den indarkeria kasu berri abten aurrean,

Hau adierazten dugu:

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa da, eta emakumeen oinarritzko askatasunei erasotzen die. Erasotze horiek gizonak emakumeen gainetik jartzen dituzten botere-harremanetan oinarritzen dira, eta emakumeak gizonekiko mendatasun egoera bizitzea dute helburu, beldurak sortuz.

Horregatik erabaki dugu:

Erasoa jasan duen emakumeari gure elkartsuna eta babesa adieraztea. Kalea, gaua, eguna pertsona guztien gozamenerako dira, eta emakumeek beldurrik gabe okupatzeko eskubidea dute. Ezerk ez du justifikatzen emakumeek bere askatasuna eta segurtasuna galtzea.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Emakumeek beren harremani, gorputzari eta sexualitateari buruz erabakitzeke duten eskubidea aldarriktzen dugu.

Sexu-eraso honen eta oro har gure gizartean gertatzen den edozein motatako eraso, indarkeria edo jarrera sexistaren aurkako gaitzespena berrestea. Horregatik, Berdintasun Politikak bultzatuz, lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, segurtasuna hobetzeko eta ingurune guztietan emakumeen askatasuna erabat gauzatzen dela bermatzeko.

Herritarrei eskatzea emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean axolagabe ez egoteko eta tolerantzia eta inpunitate zero jarrera izateko eraso matxisten aurrean erantzukizun indibidual eta kolektiboa hartuz.

Atxikitzea eta herritarrek animatzea arrazoi hori dela eta deitzen diren protesta eta arbuio ekitaldietan parte hartzea.”

Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak **erabaki du:**

Alde 5

Abstentzio 2

- 1.- Erasoa jasandako emakumeak elkartasuna adieraztea.**
- 2.- Orain arte bezala, Udaletik eraso hauek ekiditzeko lanean jarraitzea.**
- 3.- Akordioa Orkoien Udalari jakinaraztea harturiko akordioarekin babesa erakusteko asmoz.**

13. GALDE ESKEAK.

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 17:12ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.